12. Lorategiak eta hiri-parkeak II

1. XIX. mendearen bukaeran lorategia publikora ireki zen. Industria-iraultzaren ondorioz parkeak hiri handien birika gisa ulertzen hasi ziren. Adibideak: Londresko erret-parkeak, hasieran erregeen aisialdigune gisa eginak (ehizarako, batez ere), baina geroago publikora irekiak. *Regent's Park* (200 ha) eta *Hyde Park* (140 ha). Bartzelonako Güell parkean (17 ha), parke ingeles moduan pentsatua zegoena, antzerako aldaketa eman zen, publikora 1926an ireki zelarik, eraikitzen bukatu eta 12 urtera (hasieran 60 etxebizitzetako urbanizazioa egin behar zuten, baina promozioak ez zuen arrakastarik izan, 3 partzela bakarrik saldu baitzituzten). Gerriko edo eraztun berdeen kontzeptua: Amsterdam, 1934, eta Londres, 1944; gaur egun hiri gehienetan daukate eraztun berde bat egiteko asmoa –adibidez, Gasteizko eraztun berdea, 1993ko plana-, bukatzen denean 900 ha inguru izango dituena. *European Greenbelt* delako proiektua.

2. Esan daiteke Mugimendu Modernoaren lorategia planeta osoa dela. Le Corbusierrek naturaren gainean objektu baten moduan ezartzen ditu bere etxeak. Adibideak: *Savoye* etxea, 1929, eta *Unite d'Habitation*, 1947. Horrek arazo argia dakar, kalerik gabeko hiri irekian (ia) beti sartzen baita eraikin bat gehiago (garapenkeriak, hain zuzen, Mugimendu Modernoa hil duela esan daiteke). Beste proiektu batzuetan etxebizitza bakoitzari lorategi bat eskeintzen saiatzen da, terrazan (*lorategi eskegia*: *Esprit-Nouveau* pabiloia eta *Inmueble-Villa* delako etxe-irla, 1922) ala estalkian (*estalki-lorategia*: Beistegi etxea, Paris, 1930). Le Corbusierren paisaiaren inguruko ideia: naturaren edertasuna gizakiaren arkitektura-markotik gozatzen da (*natura otzandua*).

3. Lorategi posmodernoa: Aldirietako lorategi pribatu eta bakartua (hiritar bakoitzak bere etxea du, bere lorategi pribatuarekin). 1950-60 bitartean AEBetan 20 miloi pertsonak hirietatik aldirietara ihes egin zuen. Kasurik ezagunena Levittown izan zen, Pennsylvanian, William Levitt sustatzaile eta eraikitzaileak 1952an eraikia, 17.000 familiabakarreko etxebizitza bakartuekin. Hasieran arau bereziak zeuden: ezin zuten hesirik jarri, ezin zuten arropa lehortzera kanpoaldean jarri igandeetan eta beltzek debekatua zuten etxe bat erostea (bost urte geroago joan zen bizitzera lehen bikote beltza). "*The march of time*" film laburra (9:30 min).

4. Lorategi garaikidea aldirietan ere agertzen da, baina *sprawl* edo hiri sakabanatuaren testuinguruan (hiri-sarerik gabeko hirian, espazio publikorik gabeko hirian).
   - Biolentzia izugarri hazi da aldirietan. Horrekiko beldurrak hazkunde forma berria ekarri du: auzune itxia edo hesitua. Arau propioekin (galerazita egon daiteke espaloietatik kanpo ibiltzea, bandera bat jartzea, etxea kolore *deigarri* batez margotzea edo bizikleta kanpoan aparkatzea), polizia bereziarekin, sarrera bakar eta kontrolatuarekin…
   - Auzune hesituaren kokagunerik preziatuena irla da. Babesagatik ere, zirkunferentziarako joera du, horrek azalerarik handiena ixten duelako gutxieneko perimetroarekin. Adibideak: *Isla Luna* (proiektua), Valentzia. Dubaiko irla artifizialak (gaur egun eraikitzen ari dira). "*The world*" fim laburra (4:50 min). El Chorrillo, Tenerife, urbanizazio-irla autistak piszinen inguruan.
   - Lorategi –edo plaza- berriak 18 zulo ditu: golf-zelaia da, alegia. Izan ere, modan jartzen ari da auzune hesituak golf zelai baten inguruan garatzea. Horrela, Erdi Aroan hiribilduak elizaren inguruan antolatzen baziren, auzune hesituak (*gated communities* direlakoak) golf-clubaren inguruan egituratzen dira. Hiritarraren estatusa ez du diruak ematen (denak dira klase ertain edo goi klasekoak), golfeko *handicap* mailak baizik. Adibidea: Floridako golf-auzuneak.